AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

BLANCA ESTHER BARRAGAN ALBA (1, guztira 1)
Secretaria habilitada/Idazkari gaitua
Sinaduraren data: 13/02/2025
HASH: 2c0cff4615cbcd8043a450c031dd78ff

# IDAZKARITZAREN TXOSTENA

**Gaia: Kide anitzeko hainbat organotarako udal ordezkariak izendatzea.**

Txosten hau Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 172 eta 175 artikuluetan ezarritakoaren indarrez egin da

Aplikagarri den legeria

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena.
- Ermuaren Ekonomia Sustapena S.A. (PROMOSA) delakoaren estatutuak.

# INFORME DE SECRETARÍA

**Asunto: Nombramiento de representantes de la Corporación en diferentes órganos colegiados.**

El presente informe se emite en virtud de lo establecido en los arts. 172 y 175 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Legislación aplicable

- Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.
- Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.
- Estatutos de Promoción Económica de Ermua, S.A. (PROMOSA).

Baliozkotze Kod.: APY59N2LRCTQ2MP333MND6YF9
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 5

Txostena

**Lehenengoa.-** Alkate-udalburuak kide anitzeko organo hauetan Udalbatzako kideak izendatzeko proposamena egin du:

- Debabarrena Mankomunitatearen Batzar Nagusia.
- Ermuaren Ekonomia Sustapena, S.A. (PROMOSA) delakoaren administrazio-kontseilua.

Ildo horretatik, Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak (aurrerantzean, AJA), honako hau ezartzen du: eratze-bilkura egin eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan, alkateak Udalbatzaren Osoko Bilkuraren bilkura berezirako deia egingo du, besteak beste, kide anitzeko organoetan Osoko Bilkuraren eskumenekoa den Udalbatzaren ordezkariak izendatzeari buruzko puntua ebazteko.

Informe

**Primero.-** La Sra. Alcaldesa-Presidenta formula propuesta de designación de miembros de la Corporación en los siguientes órganos colegiados:

- Asamblea General de la Mancomunidad de Debabarrena:
- Consejo de Administración de Promoción Económica de Ermua, S.A. (PROMOSA):

En este sentido, el art. 38 c) del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (en adelante, ROF), en cuanto establece que dentro de los treinta días siguientes al de la sesión constitutiva, el Alcalde convocará la sesión o sesiones extraordinarias del Pleno de la Corporación que sean precisas, a fin de resolver, entre otros, el punto relativo a los nombramientos de representantes de la Corporación en órganos colegiados, que sean de la competencia

Baliozkotze Kod.: APY59N2LRCTQ2MP333MND6YF9
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 5

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

Horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.b) artikuluak (aurrerantzean, TAOAL) udalbatzari esleitzen dizkio, besteak beste, udalaz gaindiko erakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak.

Adierazpen horren barruan sartzen da, batetik, toki-erakundea horrelako erakundeetan integra dadila onartzea, bai eta haren estatutuak onartzea ere, eta, bestetik, haren gobernu-organoetan ordezkari izango direnak izendatzea. Estatutuak korporazio bakoitzaren osoko bilkurak onartzen ditu udalaz gaindiko erakundean parte hartzea erabakitzen duenean, eta horiek ezingo dute Legearen edukia xedatu ordezkariak izendatzeko eskumena Legeak adierazitakoa ez den beste organo bati esleituz, salbu eta Osoko Bilkuraren eskumenak direnean eta Osoko Bilkurak, estatutuak onartzean, eskumen hori – propioa – nola erabiliko den erabakitzen duenean, hala nola izendapenean proportzionaltasun-irizpideak sartuz, ordezkariaren agintaldia mugatuz, berezko kide gisa ordezkari den karguren bat izendatuz, adibidez.

del Pleno .

Así, el art. 22.2.b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local (en adelante, LRBRL) atribuye al Pleno municipal, entre otras atribuciones *“los acuerdos relativos a la participación en organizaciones supramunicipales”*.

Esa expresión abarca, no solo la aprobación de la integración de la entidad local en este tipo de organizaciones, así como la aprobación de sus estatutos, sino también la designación de quienes le van a representar en sus órganos de gobierno. Los estatutos son aprobados por el Pleno de cada corporación cuando decide participar en la entidad supramunicipal y éstos no pueden disponer del contenido de la Ley, atribuyendo la competencia de designación de representantes a un órgano distinto del indicado por ésta, salvo que se tratara de competencias propias del Pleno y éste, al aprobar los estatutos, decidiera el modo en que dicha competencia –propia- se va a ejercer: mediante la introducción de criterios de proporcionalidad en la designación, la limitacióndel tiempo de mandato del representante, la

Baliozkotze Kod.: APY59N2LRCTQ2MP333MND6YF9
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 5

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Hala ere, eskumena Alkatetzari dagokiola hipotesitzat onartzen bada, Osoko Bilkurak estatutu batzuk onartzea, eskumena bere buruari esleituz, Alkate-Udalburuari esleitutako eskumenak legez kanpo erabiltzea litzateke.

designación algún cargo que sea representante como miembro nato,por ejemplo. Sin embargo, si se asume por hipótesis que la competencia corresponde a la Alcaldía, la aprobación de unos estatutos por el Pleno atribuyéndose la competencia a sí mismo, supondría disponer ilegalmente de las competencias atribuidas a la Sra. Alcaldesa-Presidenta.

**Bigarrena.-** Bestalde, Promosaren estatutuetako 10. artikuluaren arabera, Korporazioari dagokio, Batzar Orokorraren funtzioetan, besteak beste, sozietateko Administrazio Kontseiluko lehendakari eta kide izango direnak izendatzea.

**Segundo.-** Por su parte, el art. 10 de los estatutos de Promosa establece que corresponde a la Corporación, en funciones de Junta General, entre otras facultades, nombrar a quienes han de ostentar la presidencia y formen parte del Consejo de Administración de la sociedad.

Horregatik guztiagatik Alkatetzaren proposamenaren aldeko iritzia ematen dut.

En consecuencia, **se informa favorablemente** la indicada propuesta de Alcaldía.

Hori da adierazi beharreko guztia, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste irizpide bati kalterik egin gabe.

Es todo cuanto procede informar, sin perjuicio de otro criterio mejor fundado en Derecho.

Baliozkotze Kod.: APY59N2LRCTQ2MP333MND6YF9
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 5

Baliozkotze Kod.: APY59N2LRCTQ2MP333MND6YF9
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 5